



BEZEROEKIN ERLAZIOA

Ezin dugu ahaztu, bezeroarekin erlazio bat sustatzeak enpresa batean duen garrantzia. Baina gure kasuan erlazio hori ez da zuzena izango, zeharkakoa baizik.



Beraiekin izango ditugun erlazioak, telefono bidez, web bidez...

izango dira, edozein kexa eta baita gustatutako gauzak ere bertan guri helarazteko aukera izango baitute. Bestalde, lehenago aipatu bezala, bezeroek aukera izango dute gure enpresako txartela edukitzeko, deskontuak lortuz, erosketen kopuruaren arabera.

Hauek dira erlazio hori zeharkakoa izatearen arrazoiak. Ez baikara, aurrez-aurre beraiekin egongo, baina txartelaren bidez gure bezero leialak zein diren jakiteko aukera izango dugu, garrantzitsua iruditzen baitzaigu azken hau.